

## **EH BILDU NO COMPARTE EL CIERRE DE PARQUES INFANTILES EN BARAÑAIN**

El grupo municipal de EH Bildu Barañain, muestra su desacuerdo con la decisión del equipo de gobierno de cerrar los parques infantiles.

La Orden Foral 54/2020 fija la reducción de aforo al 30% en estos parques y desde el grupo municipal creemos necesario que se mantengan abiertos con la reducción marcada desde el Departamento de Salud. Ha sido iniciativa del equipo de gobierno de NA+, cerrar los parques de Barañain, de la misma forma que en Pamplona o Burlada. En Estella, han optado por no clausurar estos espacios.

Desde EH Bildu creemos que cualquier otra medida más restrictiva ha de ser tomada en base únicamente a criterios epidemiológicos y de forma consensuada en la comisión del Covid creada expresamente para ello, que lleva sin convocarse desde el mes de junio. Las recomendaciones realizadas desde el ámbito sanitario para frenar la expansión del coronavirus, buscan fomentar las actividades en espacios abiertos en lugar de cerrados.

En Barañain, un municipio con la densidad de población al nivel de ciudades como Barcelona, los parques son más que necesarios para el esparcimiento de los y las niñas. Entendemos el juego como parte fundamental de la educación, siendo clave para su desarrollo y que desde el mes de marzo ha estado más que limitado. El Ayuntamiento tiene capacidad suficiente para mantener abiertos los parques, con un refuerzo de la limpieza y desinfección, así como el control de la limitación de aforo requerida, además de la indicación del aforo permitido en cada uno.

## **EH BILDU EZ DATOR BAT BARAÑAINGO HAUR PARKEEN ITXIERAREKIN**

Barañaingo EH Bilduko udal taldeak bere desadostasuna adierazi nahi du haur parkeak ixteko hartutako erabakiarekin.

Pandemia duen egoera kezkarriaren aurrean, Na+eko gobernu taldeak izan duen ekimen propio bakarra Barañaingo parkeak ixtea izan da. 54/2020 Foru Aginduak parkeen aforoa % 30era murriztea finkatzen du eta gure udal taldetik uste dugu beharrezkoa dela parke horiek irekita mantentzea Osasun Sailak ezarritako aforo murrizketarekin. Iruñean edo Burlatan, neurri berdina aplikatu dute. Lizarran, ordez, ez ixtea erabaki dute.

EH Bilduren iritziz beste edozein neurri murriztaileago irizpide epidemiologikoetan soilik oinarrituta hartu behar da, eta berriaz horretarako sortutako Covideko batzordean adostuta, ekainetik hona orain deitu ez dena. Koronabirusaren hedapena geldiarazteko osasun-arlotik egindako gomendioek espazio irekietan jarduerak sustatzea bilatzen dute, itxien ordez.

Barañainen, biztanleria-dentsitatea Barzelona bezalako hirien mailan duen udalerritan, parkeak behar-beharrezkoak dira haurren aisialdirako. Jolasa hezkuntzaren funtsezko parte bezala hartzen dugu, funtsezkoa da haien garapenerako, eta martxoaz geroztik mugatuta egon da. Gure ustez, Udalak nahikoa gaitasun du parkeak irekita edukitzeko, garbitasuna eta desinfezioa indartzeko eta behar den edukiera-muga kontrolatzeko, bai eta bakoitzean baimendutako edukiera adierazteko ere.